



ZUBIETAKO UDALA  
(Nafarroa)  
31746

# BANDOA

## INAUTERIAK

Urtarrilaren 28an ospatuko da Zubietan Inauteri eguna eta horren harira oharpen hauek egin nahi ditu Zubietako Udalak:

- Debekatuta dago plazan aparkatzea.
- Herriko sarrera itxiko da ibilgailuentzat 13:00etatik aurrera.
- Ezinbestekoa da joaldun eta mozorroen ibilaldia errespetatzea karrozekin.
- Karrozetan erabilitako auto eta traktoreak aseguru behar dute izan eta arauak konpliz ibili behar dira.
- Debekaturik dago basa animaliak, nahita, hil, mindu, zirikatu, jarraikatu edo urduritzea eta ale bizi edo hil zein beren zatiak eduki, naturalizatu eta jendaurrean erakustea ere.
- Halaber, debekaturik dago animaliei tratu txarra ematea edo justifikatu gabeko kalte edo sufrimentuak ekartzen dizkien edozein gauza egitea.
- Zentzuz jokatu argazkiekin sare sozialetan.
- Zubietako Udalak ez du ospakizunaren antolakuntzan parte hartzen eta ez ditu bere gain hartuko Inauteriaren ospakizunaren ondorioz sor daitezkeen kalteak.

Aditzera ematen dut orok jakin dezan. Inaute zoriontsuak opa dizkizuet; festa giroa izan dadila nagusi.

Zubieta, 2020ko urtarrilaren 23a.

ALKATEA,  
ERNESTO DOMINGUEZ OLEA.